



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udal Euskaltegia

Basauriko Udal Euskaltegiko Irakasle lanpostu bi txanda irekiz betetzeko lehiaketa-oposizioa arautuko duten oinarriak. Akatsak zuzentzea.

Basauriko Udal Euskaltegiko Kontseilu Errektoreak 2024ko ekainaren 18an izandako bileran honakoa

EBATZI DU:

Lehen: Zuzenketa hauek onartzea Basauriko Udal Euskaltegiko Kontseilu Errekto-reak 2024ko apirilaren 10ean ebatzi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2024ko apirilaren 19an argitaratu ziren irakasle lanpostu bi txanda irekiz betetzeko lehiaketa-oposizioa arautuko duten oinarrietan:

1. zuzenketa

Seigarren oinarrian,

— *Honakoa esaten du:*

«Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko eta Epaimahai Ka-lifikatzailea izendatzeko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Eus-kaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko da. Erreklamazioak egiteko 10 egun balioduneko epea izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan dioenaren arabera.

Erreklamaziorik egingo ez balitz, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da besterik gabe. Erreklamaziorik egingo balitz, horiek onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeari buruz hartuko den ebazpen berri baten bidez, eta Biz-kaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskal-tegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko da».

Horren ordeez,

— *Honakoa esan behar du:*

«Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko eta Epaimahai Ka-lifikatzailea izendatzeko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Eus-kaltegiko iragarki-taulan eta udalaren webgunean (www.basauri.eus) argitaratuko da. Erreklamazioak egiteko 10 egun balioduneko epea izango da, Herri Administrazioen Ad-ministrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan dioenaren arabera.

Erreklamaziorik egingo ez balitz, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da besterik gabe. Erreklamaziorik egingo balitz, horiek onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeari buruz hartuko den ebazpen berri baten bidez, eta Biz-kaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta udalaren web-gunean (www.basauri.eus) argitaratuko da.»

2. zuzenketa

Zazpigarren oinarrian,

— *Honakoa esaten du:*

«Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrek eta ordezkoez osatuko dute, eta horien izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko da.»



Horren ordezt,

— *Honakoa esan behar du:*

«Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrek eta ordeztokoe osatuko dute, eta horien izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta udalaren webgunean (www.basauri.eus) argitaratuko da.»

3. zuzenketa

Zortzigarren oinarriaren 2.1.atalean,

— *Honakoa esaten du:*

«Lan-eskarmentua. Gehienez ere, 17 puntu, hauek kontuan hartuta:

- Eguneko 0,075 puntu jardun hauetan: euskaltegiko euskara-irakasle, trebatzaile, euskaltegiko zuzendari, euskaltegiko didaktikari, euskaltegiko idazkari akademiko. Lan-eskarmentua batzeko, egindako lanaldiak batuko dira. Zerbitzua denbora partzialan edo lan jardunaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi edo jardunaldi osotzat joko dira.»

Horren ordezt,

— *Honakoa esan behar du:*

«Lan-eskarmentua. Gehienez ere, 17 puntu, hauek kontuan hartuta:

- Eguneko 0,0075 puntu jardun hauetan: euskaltegiko euskara-irakasle, trebatzaile, euskaltegiko zuzendari, euskaltegiko didaktikari, euskaltegiko idazkari akademiko. Lan-eskarmentua batzeko, egindako lanaldiak batuko dira. Zerbitzua denbora partzialan edo lan jardunaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi edo jardunaldi osotzat joko dira.»

4. zuzenketa

Bederatzigarren oinarrian,

— *Honakoa esaten du:*

«Aurrekoa hala izanik ere, proposaturiko hautagaiari jarraitzen dioten guztiekin zerrenda osagarria egingo du Epaimahaiak, hain zuzen, hautagaiak kontratua hartu baino lehen hari uko egingo balio, lanpostua bete ahal izateko.

Era berean, udal euskaltegiak berak zerrenda erabiliko ditu lan poltsa bat egiteko, azken puntuazioak ezartzen duen hurrenkeraren arabera, lanpostu berdinetan edo antzekoetan langile ez iraunkorren beharrak betetzeko.»

Horren ordezt,

— *Honakoa esan behar du:*

«Aurrekoa hala izanik ere, proposaturiko hautagaiari jarraitzen ariketa derrigorrezko eta baztertzaile guztiak gainditu dituzten hautagaiekin zerrenda osagarria egingo du Epaimahaiak, hain zuzen, hautagaiak kontratua hartu baino lehen hari uko egingo balio, lanpostua bete ahal izateko.

Era berean, lan poltsa sortuko da udal euskaltegian lanpostu berdinetan izan daitezkeen aldi baterako beharretarako. Lan-poltsa horretan, lehentasuna izango dute, lehenengo, ariketa derrigorrezko eta baztertzaile guztiak gainditu dituztenek; eta, bigarrenik, lehenengo proba gainditu dutenak. Lehentasun-maila bakoitzaren barneko ordena opo-saketa-lehiaketaren azken emaitzaren arabera izango da.»

**5. zuzenketa**

Hamaikagarren oinarrian,

— *Honakoa esaten du:*

«Bosgarren oinarrian ezarritakoaren kaltetan gabe, probak egiteko deiak, baita Epaimahai Kalifikatzaileak egin beharreko gainerako jakinarazpen eta komunikazioak ere, udal euskaltegiko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuz emango dira jakitera (euskaltegia.basauri.eus).»

Horren ordeez,

— *Honakoa esan behar du:*

«Bosgarren oinarrian ezarritakoaren kaltetan gabe, probak egiteko deiak, baita Epaimahai Kalifikatzaileak egin beharreko gainerako jakinarazpen eta komunikazioak ere, udal euskaltegiko iragarki-taulan eta udaleko webgunean (www.basauri.eus) argitaratuz emango dira jakitera.»

Bigarrena: Erabakia argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta udaleko webgunean (www.basauri.eus).

Basaurin, 2024ko ekainaren 20an.—Basauriko Udal Euskaltegiko Presidente, María Fernández Morán.—Basauriko Udal Euskaltegiaren Kontseilu Errektoreko Idazkaria, Goizane Zabala Arrizabalaga